

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

412/2025 Erabakia, uztailaren 8koa. Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko urteko planari

Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera, Konstituzioak foru lurraldeen eskubide historikoak babesten eta errespetatzen ditu. Foru araubide horren eguneratze orokorra, behar denean, autonomia estatutuen eta Konstituzioaren esparruan egingo da.

Konstituzio agindu hori garatzeko, Gernikako Estatutuaren 10.8 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio mendien, baso aprobetxamendu eta baso zerbitzuen, abelbideen eta larreen arloko eskumen eskusiboa, Konstituzioak 149.1.23 artikuluan xedatzen duena gorabehera.

Eskumenen barne banaketari dagokionez, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.9) artikuluan ezartzen denaren arabera, foru lurraldeek daukate mendien, baso aprobetxamendu eta baso zerbitzuen, abelbideen eta larreen arloko eskumen eskusiboa, Autonomiaren Estatutuaren 10.8 artikulua ezartzen duenaren ildotik, bai eta baso zaintzaren eta nekazaritza eta baso lurren kontserbazioaren eta hobekuntzaren gaineko eskumena ere.

Eskumen oinarri horiek ezarrita, Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea oinarritzkoa da, Konstituzioaren 149.1.23 artikulua horren arabera. Lege horren 48. artikulua 1. paragrafoan xedatzen denez (abuztuaren 1eko 15/2022 Errege Lege Dekretuak, baso suteen arloan presako neurriak hartzen dituenak, finkatutako testua), autonomia erkidegoek, baso suteen arrisku orokorraren aurrean, urteko planak egin eta onetsiko dituzte baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko. 48. artikulua beraren 2. puntuan gehitzen da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, autonomia erkidegoekin batera eta Baso Suteen Aurkako Batzordeak txostena egin ondoren, plan horiek egiteko gidalerro eta irizpide komunak prestatuko dituela. Gero, errege dekretu baten bidez onetsiko dira. Esan bezala, gure eremuan, autonomia erkidegoen aipamena foru lurraldeei dagokie.

Horrela, plan hau 43/2003 Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egin da. Egin beharreko jardura guztiak biltzen ditu, Arabako Lurralde Historiko osoa hartuta.

Une honetan oraindik ez dago gidalerro eta irizpide komunik, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak errege dekretu bidez onetsirik, Mendien Legeak xedatzen duen bezala.

Plan honen helburu nagusia da baso suteen arloko urteko kudeaketa tresna izatea, prebentzioaren, zaintzaren eta itzaltzearen ikuspegi integral batetik.

Horregatik, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuak eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak batera proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DA

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko 2025. urteko planari. Espedienteari atxiki zaio eta eranskinean dago.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, eta 2025eko abenduaren 31ra arte iraungo du indarrean.

Laugarrena. Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da eman duen organoaren aurrean edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua

IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO BASO SUTEAK PREBENITZEKO, ZAINTZEKO ETA ITZALTZEKO URTEKO PLANA

1. LEGE ESPARRUA

Dokumentu hau azaroaren 21eko 43/2003 Mendiei buruzko Legearen 48. artikuluan ezartzen denari jarraikiz egin da (abuztuaren 1eko 15/2022 Errege Lege Dekretuak, baso suteen arloan presako neurriak hartzen dituenak, 1. artikulua bidez aldatu du). Horren arabera, autonomia erkidegoek, baso suteen arrisku orokorraren aurrean, urteko planak egin eta onetsiko dituzte baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko. Plan horiek publiko egin behar dira garatu aurretik. Egin beharreko jarduera guztiak bilduko dituzte eta autonomia erkidegoaren lurralde osoa hartu behar dute.

Planaren edukia Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 48. artikulua 4. apartatua ezarritakora mugatzen da (abuztuaren 1eko 15/2022 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua aldatu zuen). Artikulu horren 5. apartatua ezartzen denaren arabera, urteko planak lehentasunezko antolamendu tresnak izango dira lurralde politika guztietarako, eta aurretik onetsitako baso plangintzako tresnen gomendioak eta jarduketak txertatu beharko zaizkie.

Baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko urteko plan horiek Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak errege dekretu bidez onetsitako jarraibide eta irizpide komunak arabera egingo dira, autonomia erkidegoen parte hartzearekin eta Baso Suteen Aurkako Batzordearen txostena jaso ondoren.

Dokumentu hau idazteko unean, Errege Dekretu hori ez dago argitaratuta.

2. XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA ARAU ESPARRUA

Plan honen helburu nagusia da baso suteen arloko urteko kudeaketa tresna izatea, prebentzioaren, zaintzaren eta itzaltzearen ikuspegi integral batetik.

Lurralde eremua Arabako Lurralde Historiko osoa izango da. Denbora eremua 2025. urte osoa izango da.

3. LURRALDE AZTERKETA ETA ZONAKATZEA

Arabako Lurralde Historikoaren 303.613 ha-ko azalera du guztira; 188.000 ha mendiei dagozkie.

Zuhaitzek 142.000 ha hartzen dituzte eta sastrakadiak ia 36.000 ha.

Azalera banaketa 2024	Azal. (ha)	Publikoa (%)
Basoa	109.299,0	83,8
Landaketa basoa	30.103,0	54,4
Galeria basoa	2.523,0	22,3
Sastrakadia	16.543,0	73,5
Belardia	5.242,0	66,3
Goiko landarerik gabeko mendia	5.369,0	77,2
Nekazaritza	83.461,0	7,6
Artifiziala	10.067,0	5,2
Hezegunea	56,0	0,0
Ura	3.119,0	3,5
Autobideak eta autobiak	2.264,0	5,0
Eroanbide azpiegiturak	87,0	27,0
Meatzaritza: hondakindegia eta zaborteak	790,0	36,6
Heskaidun belardiak	1.393,0	4,9
Larrea	14.048,0	14,2
Larrea-sastrakadia	19.249,0	51,7
Guztira	303.613,0	48,8

-Azalaren banaketa EAEko 2024ko Baso Maparen arabera-

3.1. Arabako Lurralde Historikoan dagoen problematika sozioekonomikoaren lurralde azterketa, suteak behin eta berriz eragitearen edo sua zabarkeriaz erabiltzearen bidez ager daitekeena.

3.1.1. Araban 2024an izan ziren baso suteen kausak askotarikoak izan ziren, azken hamarkadan gertatu den bezala:

Kausa taldea	2024ko suteen kopurua
Nahita	5
Zabarkeria	0
Zehaztu gabe	1
Ezbeharra	3
Naturalak	0

3.1.2. ALHko 2024. urteko baso suteen estatistika laburpena:

Hektarea bat baino gutxiagoko suteak (su txikiak):

Kopurua	Azalerak		
	Zuhaitzak	Sastrakak eta basobera	Bazka
6	0,16	0,75	0,81

Hektarea bat baino gehiagoko eta 5 hektarea baino gutxiagoko suteak:

Kopurua	Azalerak		
	Zuhaitzak	Sastrakak eta basobera	Bazka
3	4,43	2,75	0,00

5 hektareatik gorako suteak:

Kopurua	Azalerak		
	Zuhaitzak	Sastrakak eta basobera	Bazka
0	0,00	0,00	0,00

Azken datuak guztira:

Kopurua	Azalerak		
	Zuhaitzak	Sastrakak eta basobera	Bazka
9	4,59	3,50	0,81

3.2. Arriskuaren analisia (arriskua eta zaurgarritasuna) eta lurraldearen zonakatzea arriskuaren arabera.

Arabako Lurralde Historikoko baso suteen arriskuari buruzko azken azterketa 2014an egin zen, 2004-2013 bitarteko hamar urteetako suteei buruzko datu estatistikoetan oinarrituta; azterketa horren bidez zenbait indize estatistiko ezarri ziren eta gero horiei esker sute arriskuaren mapa sortu zen. Azterketa horren funtsezko helburua zen baso suteen arrisku estatistikoaren indize bat zehaztea, suteetarako operatiboak antolatzen eta prebentzio neurri eraginkorrak ezartzen laguntzeko.

Azterketa hori egiteko, Baso Suteen Estatistika Orokorreko (BSEO) datuak hartu ditugu oinarritzat. Estatistika hori 1968an hasi ziren egiten eta gaur egun autonomia erkidegoek egiten dute, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak koordinatuta. Arabako udalerri bakoitzeko arrisku indizea ezarri zen honako hiru indize hauetan oinarrituta: intzidentzia indizea (maiztasuna), kausalitate indizea eta arriskugarritasun indizea.

3.2.1. Hiria-basoa interfazea.

Baso suteetarako larrialdiko babes zibila planifikatzeko oinarritzko jarraibidea onesten duen azaroaren 15eko 893/2013 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera, hiria-basoa interfazea da eraikinak mendiarekin kontaktuan dauden zona. Zona horretako suteak eraikinetara heldu daitezke eta, gainera, eraikitako zonen barruan zabalduta daitezke, sorreraren kausa edozein dela ere.

Arabako Suhiltzaileen erakunde autonomoak lurraldeko hiria-basoa interfaze zonak aztertu ditu. Horretarako, baso masen geruzak gainjarri dira 50, 100 eta 200 metroko distantziara eraikitako espazioen geruzekin eta Arabako hiriguneetako interfazeen mapak egin dira. Interfazeen mapa horietatik abiatuta, hiriguneen fitxa bereziak egiten ari dira. Fitxa horietan prebentzio jarduketa batzuk proposatzen dira.

Arabako Suhiltzaileen erakunde autonomoak egindako hiria-basoa interfaze zonen azterlana I. eranskinean azaltzen da.

3.3. Kudeaketa puntu estrategikoak eta jarduketa eremu bereziak.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua baso suteak prebenitzeko planak egiteko kontratazioa prestatzen ari da. Kontratatu diren lanen artean honako hauek egiteko metodologia zehaztuko da: lurraldeko baso guztietarako kudeaketako puntu estrategikoak (KPE) finkatu, batetik; bestetik, argitu lurraldeko zer tokitan erregaia aldatzeak edota azpiegiturak egokitzeak ahalbidetuko dien su itzaltzeko baliabideei eraso maniobra seguruak egitea baso sute handia gertatzeko arriskua mugatzeko. KPE horien plangintza ere egingo da.

4. URTE OSOAN BASO SUTEAK PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO ETA ITZALTZEKO ARRETA OROKORRA EMATEKO DISPOSITIBOAREN DISEINU OROKORRA

4.1. Arrisku garaia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Suteetarako Larrialdi Plan Bereziak baso suteak izateko arriskua dagoen hiru sasoi ezartzen ditu; oro har, zona klimatiko bakoitzaren ezaugarri bereziak alde batera utzita, honela sailkatzen dira:

- Arrisku handiko sasoiak. Alde nabarmenak daude alderdi geografikoaren arabera. Zona mediterraneoan uda da arrisku sasoi; arriskua eguraldiaren arabera da, faktore erabakigarria baita landarearen egoera. Bestalde, zona kantauriarrean udazkenarekin batera hasi ohi da arrisku sasoi eta apirilaren erdialdera arte luzatzen da, orduan agertzen baitira lehenengo iratze kimuak. Aldi horretan, haizeak hegoaldeko jotzen duen egunetan agertzen da arriskua, Kantauri itsasoko ertzean ohikoan izaten baita Azoreetako antizikloiaren ondorioz.

- Arrisku ertaineko sasoia. Sasoi hori udako hilabeteetan gertatzen da Kantauri isurialdean, arrisku handiko sasoia baino aste batzuk lehenago. Sasoi horretan, sua hasten bada ere, poliki-poliki hedatzen da, landaredia ihartu gabe dagoelako eta hegoaldeko haizerik izaten ez delako. Zona mediterraneoan arrisku ertaineko sasoia udaberria izaten da.
- Arrisku txikiko sasoia. Urteko zikloko landaredia ezarrita dagoenean hasten da, ernaberritze nahikoa dagoenean edota hezetasuna handia dagoenean, hain handia, ezen sua agertzea eta hedatzea eragozten eta geldiarazten baitu.


Hona hemen arrisku sasoiak, Euskal Autonomia Erkidegorako ezarritako lurralde zonen arabera:

ZONA	ARRISKU SASOIAK		
	ALTUA	ERTAINA	TXIKIA
I. ZONA	09-15etik 04-15era	07-15etik 09-14ra	04-16tik 07-14ra
II. ZONA	07-1etik 10-31ra	03-01etik 06/30era	11-01etik 02-28ra

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko baso suteetan inguruabar meteorologikoek nolako garrantzia duten kontuan hartuta, inguruabar bereziak aintzat hartu ahal izango dira aurreko taulan adierazitako datei dagokienez.

Taulako zonak erantsitako mapan agertzen dira:

- I. zona.- Kostaldeko lerrotik iparraldetik uren banalerroraino, Arabako Lautadaren iparraldeko mugaraino, gutxi gorabehera.
- II. zona.- Mediterraneoaren eraginpeko eskualdeak: Lautada, Haranak, Mendialdea eta Arabako Errioxa, autonomia erkidegoaren lurralde mugetaraino.



4.2. Bitartekoen eta baliabideen katalogoa.

Lurreko eta aireko bitartekoetarako ur harguneen katalogo eguneratua dago.

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoak sute ahoak eta ur harguneak aztertzen ditu aldizka, eta joan-etorriak egiten ditu intereseko eremuetan, bideak nola dauden eta tokietara irits daitekeen egiaztatzeko.

SEAk, basozainek eta teknikariek erabiltzen duten komunikazio sarea Eusko Jaurlaritzarena da (TETRA sarea). Sare komuna da lurralde historiko guztietarako, baita larrialdi zerbitzuertarako ere (osasun zerbitzuak, polizia zerbitzuak, suhiltzaileak eta beste batzuk).

Sua itzaltzeko bitartekoen base finkoei dagokienez, gaur egun 7 daude lurraldean. II. eranskinean eragin eremuak eta babesak azaltzen dira.

SEAk lankidetza hitzarmenak sinatu ditu honako hauekin larrialdietan elkarri laguntzeko:

Gasteizko suhiltzaileak

Miranda de Ebroko suhiltzaileak

Logroñoko suhiltzaileak

Errioxako SISEUko suhiltzaileak

Nafarroako suhiltzaileak

Bizkaiko suhiltzaileak

Gipuzkoako suhiltzaileak

4.2.1. Baseen kokapena: eta langileak.

Basea	Giza baliabideen kopurua
Gasteiz	118
Langraiz	54
Laudio	30
Agurain	24
Kanpezu	24
Guardia	24
Espejo	24

4.2.2. Baso suteak itzaltzeko lanetarako jarritako baliabideak.

Basea	Baso autoponpak	Zisterna ibilgailuak	Landa autoponpak	4x4 ibilgailu arinak
Gasteiz	2	2	2	3
Langraiz	4	1	2	4
Laudio	1	1	1	2
Agurain	1		1	2
Kanpezu	1	1	1	2
Guardia	1		1	2
Espejo	1		1	2

II. eranskinean aurreko taulako baseetako zona operatiboak azaltzen dira.


4.2.3. Elementu gehigarriak kanpainan.

Baso kanpainan zehar, bi buldozer kontratatu dira, aktibazio eta erabilgarritasun sistema baten bidez arrisku egoerei arreta emateko.

Ministerioak lurlean kargatzeko hiru hegazkin dauzka, bi (2) Agoncilloko basean eta bat (1) Noaingoan. Hegazkin horiek zuzenean aktibatu daitezke udako hiletan baso suterik izanez gero.

4.2.4. Mendi Zerbitzuaren eskura dauden baliabideak.

Mendi Zerbitzuak baso suteak prebenitzeko lanetarako dauzkan baliabide teknikoetako bat basozaintza da. Zerbitzuaren antolaketa hiru baso atal daude. Guztira, 28 basozain daude; planoan banaketa erakusten da:



-Basozaintzako zonen banaketa (2025)-

5. PREBENTZIO NEURRIAK

5.1. Prebentzio lanak.

III. eranskinean egingo diren prebentzio lanak zehazten dira. Aurreko urteko baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko planeko lanetatik egin ez zirenak dira, aurtan proposatutako jarduketak berriak gehituta.

Lan horietako batzuk urtean zehar egingo dira eta baliabide urritasunagatik edo aurrekontuan dirurik ez dagoelako egin ezin direnak hurrengo ekitaldietarako utziko dira.

5.2. Baso suteak prebenitzeko kontzientziazio eta sentsibilizazio programak, gizartearen parte hartzea sustatuz eta herritarrek mendiaren babesean dagokien ardura beren gain hartzea bultzatuz.

2024an, hainbat komunikazio ekintza egin dira baso suteen prebentzioaren arloan egindako jarduketari dagokienez. Batez ere irratiko iragarkiak, prentsa oharrak eta postak sare sozialetan. Ez da jarduketarik aurreikusten 2025erako.

5.3. Prebentzio neurriak ezartzeko lanak egiteko modalitateak. Laguntza lerroak.

Arabako Foru Aldundiak aurreikusitako jarduerak gauzatzeko, batez ere, hainbat kontratu adjudikatu dira aurrekontu partida honen kargura: 'EGEF, Baso lanak egiteko eta suteak prebenitzeko kontratua'. Aribideko urterako 1.000.000 euro ezarri dira partida horretan.

Jarduketa horiek titulartasun publikoko lurretan egiten dira, Mendi Zerbitzuak eskatuta eta hari esleitutako aurrekontuen kargura.

Era berean, TRAGSA enpresarekin enkargu bat formalizatu da, baso talde batek baso suteak itzaltzeko eta prebenitzeko zerbitzua eman dezan ALHko mendietan. Sute arrisku handieneko hilabeteetan, taldea prest egongo da ALHko mendietan edozein baso sute mota hasten denerako, eta lehen arretarako/lehen erasorako talde gisa, gerta daitezkeen sute txikiak murriztu nahi dira.

Aldi horretan, taldearen zeregin nagusia da berehalako erasoak egitea Arabako Lurralde Historikoko mendi guztietan, ahal den guztietan zuzeneko erasoak lehenetsiz.

Urtearen gainerakoan, taldeak prebentzio lanak egiten ditu sute arrisku handiena duten mendietan, suebaki zerrendak indartuz pisten ertzetan eta berariaz sortuta dauden eremuetan eta erretze kontrolatuak/sastrakak kentzeak/inausketak eginez material erregai gehiegi duten eremuetan, suteak gertatuz gero berez arriskutsua izan baitaiteke.

Lan horietan, mendiko material erregaiaren eten bertikalak eta horizontalak egiten dira, sasiak kenduz, inausketak eginez, soilduz, ebaketak eginez, irtenguneak eginez, enborrak kenduz, hondakinak bilduz eta ateraz, ahal bada, eta hondakinak kenduz.

Enkargua "TRAGSA baso brigadaren" aurrekontu partidaren kontura egin da. Partida horrek 584.000,00 euro-ko zuzkidura du aurten, eta haren luzapena onesteke dago.

Beste alde batetik, belar sastrakak garbitzeko eta mendiko gainazalak mantentzeko lanetarako laguntza lerro bat ezarri da. Onuradunak tokiko erakunde jabeak zein partikularrak dira, eta horientzako laguntza hauek ebatzi dira 2025eko deialdian:

- Partikularrak: 185.640,76 euro

- Publikoak: 79.685,46 euro

Laguntza horiek 530.000,00 euro inguruko inbertsio erreala eragin dezakete.

Ez da aurreikusten administrazioak jarduketak subsidiarioki gauzatzea.

5.4. Prebentzio neurrien adierazleak.

IV. eranskinean prebentzio arloko adierazleen taula dago.

6. BASO SUTEEN BEHIN BETIKO ESTATISTIKA EGITEA

2025. urtean, ohi bezala, hilero bidaltzen zaizkio (astero, udako hilabeteetan) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren mendeko Baso Politikaren eta Desertifikazioaren aurkako Borrokaren Zuzendariordetza Nagusiari Baso Suteen Aurrerapen Estatistikoa egiteko behar diren datuak.

AFAko Mendi Zerbitzuak 2024ra arteko baso suteen parteak sartu ditu EGIFWEB plataforman, urte hori barne.

7. FINANTZAKETA

Mendi Zerbitzuak hainbat kontratu adjudikatu ditu prebentzioko baso tratamenduak egiteko eta azpiegiturak mantentzeko.

2025eko inbertsioak:

Gaia	Baliabide mota	Planaren 2025eko aurrekontuan jasotako inbertsioa
Baso suteen prebentzioa	Prebentzio kontratuak	1.453.187 €
	Giza baliabideak	aldagarria
Baso suteen zaintza	Bitarteko eta baliabide materialak	-
	Giza baliabideak	-
Baso suteak itzaltzea	Bulldozer	50.000,00 €
	HELIF*	100.637,00 €
	Giza baliabideak	
Basogintza sektoreari buruzko komunikazioa, kontzientziazioa eta zabalkundea	Bitarteko eta baliabide materialak	
	Giza baliabideak	
Guztira		1.603.824,00 €

* Prebentzio/su itzaltze lanak sute kanpainaren garapenaren arabera izango dira. Luzapena izapidetzeko zain.

8. ERABILEREI ETA DEBEKUEI EDO MUGEI BURUZKO ARAUAK

Baso suteak eragin ditzaketen erabilerak arautzeari dagokionez, baso sutearen arrisku mailen arabera, Mendiei buruzko 43/2003 Legearen 48.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

8.1. Lurralde eremu jakin batean sute arrisku oso handia edo erabatekoa aurreikusten denean aplikatu beharreko debekuak eta mugak.

Ekainaren 23ko 219/2023 Foru Aginduak suaren erabilera arautzen du Arabako Lurralde Historikoan. Foru Agindu horrek oro har debekatzen du landa ingurune guztian sua erabiltzea, edozein helbururekin dela ere. Landa ingurune izango dira Arabako Lurralde Historikoko leku hauek:

- Landa lurzorua, mota guztietakoa.
- Mendi publikoak eta pribatuak.
- Babestutako naturaguneak.
- Parke probintzialak eta aisiaguneak.
- Probintzia edo toki titulartasuneko errepideetako atsedenguneak.

Sua erabiltzeko debeku hori lur horien azalera osoan aplikatzen da, eta urte osoan egongo da indarrean.

Debekua orokorra da. Salbuespenak ezartzen dira Euskalmetek ematen duen informazioaren arabera lurralde eremu jakin batean su arrisku oso handia edo erabatekoa iragartzeko modurik ez dagoenerako; hona:

- Aurretik eskatuta, Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak baimentzen duen edozein erabilera.
- Suteak prebenitzeko egiten diren lanak. Aldi horietatik kanpo, Suhiltzaileen Erakunde Autonomoak baso suteak itzaltzeari buruz egiten dituen prestakuntza jarduerak sustatuko dira.
- Urte osoan zehar erabili ahal izango dira agindu horren III. eranskineko parkeen zerrendan ageri diren erretokiak eta barbakoak, bai eta Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuaren berariazko baimena daukaten obrako erretokiak ere.
- Iraileko hirugarren astelehenetik ekaineko hirugarren igandera bitartean, sua erabiltzea baimenduta egongo da Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen aisiaguneetan itxita ez dauden obrako erretegietan eta Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuaren berariazko baimena daukaten obrako erretegietan.
- Erretura kontrolatuak eta Mendi Zerbitzuak berariaz baimendutako prebentziorako agindutako erretzeak, helburua mendiko baso erregaiak murriztea edota jarraitutasuna haustea bada.

8.2. Erreturak egitea.

Uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduak arautzen du nola egin behar diren nekazaritzako hondakinen erreturak Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan; nekazaritzako hondarrak dira: uza hondarrak, mahatsondo edo olibondoen inausketako hondarrak, lasto fardoak eta nekazaritzako beste landare hondar batzuk. Haren barruan hartzen da modu estentsiboan landutako zerealen hondakinak estentsiboki erretzea, baldin eta arrazoi fitosanitarioengatik eta ohiz kanpoko arrazoi meteorologikoengatik baino ez badira erretzen.

8.3. Ibilgailuen zirkulazioa.

Baso pistetan ibilgailu motordunak zirkulatzeko debekuei edo mugei dagokienez, jasota daude Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako toki erakundeen onura publikoko mendietan eta jabari publikoko mendietan ibilgailu motordunen zirkulazioa arautzen duen martxoaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 10/2010 Foru Dekretuan.

Dekretu horren aplikazioaren ondorioz, ibilgailu motordunen erabilera baimendutako bideetara eta egokitutako eremu espezifikotara mugatzen da. Erabilera arau batzuk ezartzen dira, eta bermatzen da nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza kudeatzeko eta mendia zaintzeko eta babesteko beharrezkoak diren lanak egiteko ibilgailuen zirkulazioa, bai eta larrialdi egoeretarako edo ezinbestezko egoeretarako ere, zeinek beren araubidea baitute, gainerako erabilerak bezain murriztailea ez dena.

9. PLANGINTZA TOKI EREMUAN

9.1. Lurralde eremuko jarduketa planak.

Urteko planetan, Arabako Lurralde Historikoan aurreko urtean onetsitako baso suteen arloko lurralde eremuko jarduketa planak jaso beharko dira, bai eta urteko plana indarrean egongo den urtean onetsiko diren eremu txikiagoko lurralde planak ere (kuadrillak, udalerriak); bi kasuetan, udalerri edo kuadrilla zehatzak adierazi beharko dira.

9.2. Baso sutearen arriskuagatiko autobabes planak.

Urteko planek Arabako Lurralde Historikoko autobabes planen egoeraren azterketa jasoko dute, bai eta plangintza horren urteko aurrerapenaren aurreikuspena ere.

I. ERANSKINA. HIRIA-BASOA INTERFAZEKO ARRISKUAREN ANALISIA

Azterketa honetan, udal eremura jaitsi da eta herrigune guztiak aztertu dira, gune horiek osatzen dituzten eraikuntza multzoak kontuan hartuta eta, lehen ebaluazio honetarako, eraikin isolatuak baztertuta.

Azterketa ortoargazkien gainean egin da, herriguneen inguruko landare masak eta lurrean dagoen desnibela ikusita.

Arriskuaren haztapena honako aldagai hauen arabera egin da:

- Herriguneen inguruko landare masa (kantitatea eta kalitatea).
- Landare masak inguruan luzatzea.
- Baso sutearen arrisku mapa, GeoEuskadi.
- Lursailaren desnibela herrigunetik gertu.
- Landare masen orientazioa hirigunearen arabera, hegoaldeko eta ekialdeko isurialdeetan daudenak gehiago haztatuta.
- Beste aldagai batzuk, hala nola hiriguneetako irisgarritasuna eta sarrera- eta irteera-bideak.

Lehentasun handiko (kolore gorria) gisa sailkatzen dira sute batek biztanlerian inpaktua izateko arrisku handia duten guneak, batez ere landare masaren eta topografiaren ondorioz.



Lehentasun ertaineko (kolore laranja) gisa sailkatzen dira, aurrekoak bezalako arrisku altuen eraginpean egon gabe, hartu beharreko neurrietan lehentasunezko zat jotzen diren guneak.


Lehentasun baxuak (kolore horia) barne hartzen ditu inpaktu arriskua duten guneak, baina sute baten aurrean defentsa baldintza onak dituztenak, goiz eta baliabide egokiekin jardunez.

Ondoko taulan herriguneen eta biztanleen kopuruak zehazten dira, kuadrillaka.

	HERRIGUN EAK	HERRIGUN EAK	HERRIGUN EAK	HERRIGUN EAK
	BIZTANLE AK	BIZTANLE AK	BIZTANLE AK	BIZTANLE AK
AÑANA	115	11	32	21
	8931	316	830	1838
LAUTADA	66	0	6	20
	12453	0	304	1986
AIARA	48	0	5	15
	34463	0	259	3262
KANPEZU	48	6	8	14
	2915	150	308	1400
GORBEIAL DEA	70	1	8	30
	9747	38	711	5085
GUARDIA	22	0	4	8
	11323	0	541	4167
GASTEIZ	65	0	3	18
	250051	0	258	982
GUZTIRA	434	18	66	126
	329883	504	3211	18720

Interfaze zonak banakako mapetan zehazten dira; Google Earth bidez ikus daitezke.
Ondoren kuadrillaka bilduta ageri dira.







Hurrengo urratsa herrigune bakoitzeko fitxa egitea da; hona edukiaren egitura:


1. Arriskuaren kokapena.
2. Arriskuen analisia.
3. Jarduteko espazioa.
4. Autobabeserako neurriak.
5. Eragiketa fitxa.
6. Beste faktore batzuk (komunikabideak, eraikin motak, ingurune jolas jarduerak, telekomunikazio azpiegitura...).

Pilotu modura, Musituko fitxa egin da.

INTERFAZEAN EGINGO DIREN PREBENTZIO JARDUKETAK

25 m-ko zabalerako suebaki zerrenda bat sortzea (50 metrokoa, herrigunerako goranzko malda ehuneko 30etik gorakoa bada).

Suebaki eremutat edo haustura elementutat hartzen da azalera zabal samarra, non landaredi naturala, trinkoa eta oso sukoia aldatu egiten den biomasa txikiagoko edo hain sukoia ez den beste landaredi bat lortzeko, hartaraino iristen diren lurzoruko suak geldiarazteko edo errazago kontrolatzeko, eta defentsa lerroak ezartzeko oinarri gisa balio dezaten.



Honako hauek izango ditu:

- Garbiketa zerrenda (edo bide perimetrala), 5 metroko zabalera, 5 metroko altuera eta 2000 kilopondio/m²-ko sostengu ahalmena dituen, eta bazterbideak 1 km-tik behin.
- Sastrakak kentzeko zerrenda
- Zerrenda lagungarria

Garbiketa zerrenda

Dagoen landaredia kentzea, lurzoru mineralera iritsiz, sua zorupeko suebaki zerrenda baten bidez transmititu ez dadin.

Sastrakak kentzeko zerrenda

Sastrakak kenduko dira, denak edo batzuk. Suak errazen hartzen dituen espezieak kenduko dira eta babestutako espezieak ez dira ukituko.

Zuhaitzak moztuko dira.

Zerrenda lagungarria

Zuhaixkak erabat garbituko dira eta belar sastrakak ezabatuko dira.

Zuhaitzak moztuko dira, harik eta edukiera estalia (FCC) % 20 izan arte. Gainerako zuhaitzak garaieraren 2/3tik behera inausiko dira (3 metro gehienez).

Bertan behera utzitako laborantza sailak mailakatuko dira, erregaiei jarraitasuna eteteko.

Malda handiko tokietan, heltzen zail den tokietan, amildegietan eta antzekoetan beste tratamendu batzuk aztertuko dira.

HERRIGUNE BARRUKO LANDAREDIA

Barneko landaredia ere gai da sute bat zabaltzeko, eta, beraz, dauden ondasunen zaurgarritasuna murrizteko, baso lursailerako distantzia 100 metrotik beherakoa denean, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Zuhaixketan
 - Edukiera estaliaren ehuneko 10 utziko da gehienez.
- Zuhaitzetan
 - Edukiera estalia ehuneko 40tik beherakoa izan behar da (lurzatiaren guztirako azalera kontuan hartuta).
 - Gainerako zuhaitzak garaieraren 2/3tik behera inausiko dira (3 metro gehienez).

Nolanahi ere, zuhaixken eta zuhaitzen edukiera estalia ezin da izan ehuneko 40tik gorakoa.

Eraikinik gabeko lurzatietan inguruko babes zerrendetako baldintza berak bete behar dira.

SARBIDEAK

Gutxienez sartzeko bi bide izatea gomendatzen da, 5 m-ko zabalera, 5 m-ko altuera, 2000 kp/m²-ko sostengu ahalmena eta 1 km-ko bazterbideak izango dituztenak.


Sarbide bat bakarrik badago, amaieran 12,5 metroko erradioko zaku hondoa eduki behar du.

Bideak eta arekak garbi mantendu behar dira, hau da, landararik gabe, ez bizirik, ez igarturik.

10 metroko babes zerrenda bat egingo da alde bakoitzean, eta bertan honako jarduketa hauek egingo dira:

- Zuhaixkak. Mehazketa lan handia egingo da eta belar sastrakak ezabatuko dira. Suak errazen hartzen dituen espezieak kenduko dira eta babestutako espezieak ez dira ukituko.
- Zuhaitzak: Zuhaitzak moztuko dira, harik eta edukiera estalia (FCC) ehuneko 20tik beherakoa izan arte. Gainerako zuhaitzak garaieraren 2/3tik behera inausiko dira (3 metro gehienez).

II. ERANSKINA SEako ZONA OPERATIBOAK



III. ERANSKINA. PREBENTZIO LANAK

2025. urterako eta hurrengoetarako aurreikusitako prebentzioko basogintza lanak honako hauek dira:

OPko mendiaren zk.	Aurkintza	ENTITATE TITULARRA	Kopurua	Unit	Jarduketa kodea	Jarduketaren izena
375	Olano	Olano	1,5	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Manurga Tillarri	Manurga	5,5.	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Askor	Zigoitia	1,07	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Askor 2	Zigoitia	0,66	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Manurga Biobizker	Zigoitia	3,84	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Boliaran	Zigoitia	2,73	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Boliaran2	Zigoitia	2,06	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Baltzolaga	Zigoitia	0,7	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Murua Molino	Zigoitia	0,51	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Harrobiak-Leisaranda	Zigoitia	3,89	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
376	Murua Molino Etxaguen Larestoi	Zigoitia	0,6	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
679	Eskarramendi	Legutioko Udala	1,02	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
664	Antelarra	Legutioko Batzarra	0,99	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
679	Motxotegi	Legutioko Udala	1,53	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
378	Mendarozketa	Mendarozketa	0,27	km	DLH5	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Mailuak, diskoak edo kateak
370	Apodaka	Apodaka	4,64	km	DLH5	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Mailuak, diskoak edo kateak

OPko mendiaren zk.	Aurkintza	ENTITATE TITULARRA	Kopurua	Unit	Jarduketa kodea	Jarduketaren izena
371	Arratobe	Zaitegi	0,62	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
371	Aiurdin	Zaitegi	0,4	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
41	Madaria-Salmanton	Madaria	1,63	km	DLH2,5,1	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
22	Arespalditza-Etxaurren	Arespalditza	1,21	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
19	Izoriatik Etxaurrenera	Izoria	0,91	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
28	Agiñiga	Agiñiga	0,33	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
34	Agiñiga OPko 34 mendia	Agiñiga	0,35	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
28	Menerdo	Madaria	0,86	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
42	Salmanton	Salmanton	0,44	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
37	Jarduri	Menoio	1,54	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
42	Agiñiga	Salmanton	1,7	ha	CRN	Mehazketa edo hobetze mozketak masa naturalean
71	Lapatzerreka pista	Lezama	1,87	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
71	San Anton	Lezama	1,45	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Onsoño-Askargan	Amurrio	1,76	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Bergantza errekatik Intxaustira (mendi partikularrak)	Amurrio	0,52	km	DLH2,5,1	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Pardio-Arrispeta-Askargan	Amurrio	1,93	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Kukuzmendi	Amurrio	0,68	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
1	El Pendiente	Amurrio	2,31	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak

OPko mendiaren zk.	Aurkintza	ENTITATE TITULARRA	Kopurua	Unit	Jarduketa kodea	Jarduketaren izena
1	Erroiaspe	Amurrio	1,82	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Mariaka-Pagatza	Amurrio	2,4	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Izartza	Amurrio	0,23	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
1	San Roke	Amurrio	0,23	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Poto	Amurrio	0,77	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Larra eta Pardio artean	Amurrio	1,29	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Askarganerak o malda	Amurrio	2,32	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Askarganerak o biltegia	Larrinbe	1,56	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Ejido - Aldama	Amurrio	3,3	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Pardio	Amurrio	1,42	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
1	Peña Negra	Amurrio	23,61	ha	DESM3.1	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: > % 15-<= % 30; fcc: <= % 50
65	Katxabazo	Baranbio	3,45	ha	DESM3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: > % 15-<= % 30; fcc: >% 50-<= % 80
66	Garbika	Lezama	26,05	ha	DESM1.1	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: <= % 15; fcc: <= % 50
76	Izarduitik Pagolarrera	Laudio	1,5	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Izarduitik Irmixira	Laudio	0,95	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Espartzagaraitik Solaunera	Laudio	0,24	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Paradarako bidea	Laudio	1,9	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Odiagatik Etxeorura	Laudio	1,09	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4

OPko mendi- en zk.	Aurkintza	ENTITATE TITULARRA	Kopurua	Unit	Jarduketa kodea	Jarduketaren izena
						m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Oruetatik Etxeorura	Laudio	1,31	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Neberatik Alketara	Laudio	0,4	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Neberatik Atxurdinera	Laudio	0,49	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Oliobideko pista	Laudio	0,91	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
72	Amestuigana ko bidea	Laudio	1,88	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
72	Morterutxutik Amestuigana ra	Laudio	1,16	km	DL2,5,1	Pisten alboko sastrakak kentzea, mekanizatuta, besoarekin, 2,5 m-ra arte, zailtasun ertaina. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Odiagatik Izarduira	Laudio	1,17	km	DLH2,5,2	Pistaren sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, birrintzea barne, 2,5 m-ra arte alboan, 4 m-ko garaieraraino adarretakoa, pistaren bi aldeetan, eta 4 m-rainoko plataformakoa. Zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
76	Pagolar	Laudio	4,51	ha	DESC3.3	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc >%80
734	Seperkutza	Markina	1,98	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
739	Peterbide-Oro	Domaikia	0,87	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
734	Berretin	Zuia	1,15	km	DPL	Botatako zuhaitzak kentzea, inaustea eta soiltzea
734	Berretin	Zuia	3,53	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
739	Domaikia Arrato	Domaikia	1,09	km	DL2,5,2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatua, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
734	Arlوبي	Zuia	4,92	ha	DESM1.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: <= % 15; fcc: >% 50-<=% 80
734	Gorrostiano	Zuia	21,38	ha	DESM3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: > % 15-<=% 30; fcc: >% 50-<=% 80
	Indusi-Oro	Zuia	0,29	ha	DESM3.1	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: > % 15-<=% 30; fcc: <= % 50
734	Munikabaso Altube	Zuia	8,82	ha	DESM1.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: <= % 15; fcc: >% 50-<=% 80

OPko mendiaren zk.	Aurkintza	ENTITATE TITULARRA	Kopurua	Unit	Jarduketa kodea	Jarduketaren izena
734	Aldarro	Zuia	5,33	ha	DESM1.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: <= % 15; fcc: >% 50-<=% 80
734	Las Corraladas bajo	Zuia	3,23	ha	DESM1.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: <= % 15; fcc: >% 50-<=% 80
734	Corraladas alto	Zuia	2,81	ha	DESM3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, mailuak; malda: > % 15-<=% 30; fcc: >% 50-<=% 80
	Indusi-Oro	Zuia	1,1.	ha	DESC3.1	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc <=% 50
78	Orbe	Okondo	1,27	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatuta, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
81	Sarsakon Okondo	Okondo	0,94	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatuta, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
81	Sarsakon Okondo	Okondo	0,19	km	DP	Bideko plataformako sastrakak kentzea, 4 m-ra arte
752	Larraburu	Lanteno	3,08	ha	CRPD2	Mehazketa, hobetze mozketak, inaustea eta sastrakak kentzea, lan karga ertaina
100	San Bernabe Abornikano	Abornikano	0,47	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatuta, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
104	Montegrand e Las Paduras	Abornikano	2,16	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatuta, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
102	Godamoa	Larrazkueta	1,09	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatuta, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
97	Abezia muga Gibijo	Abezia	1,93	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatuta, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
90	Bidondo Abornikano	Abornikano	1,47	km	DL2,5.2	Pisten alboko sastrakak kentzea, besoarekin mekanizatuta, 2,5 m-ra arte, zailtasun handia. Mailuak, diskoak edo kateak
91	Las Hayuelas Goiuri	Goiuri	4,4	ha	DESC3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc >% 50-<=% 80
89	Izarra interfazea	Izarra	6,63	ha	DESC3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc >% 50-<=% 80
11	Koskoarana bajo Artomaña	Artomaña	2,53	ha	DESC3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc >% 50-<=% 80
11	Koskoarana alto Artomaña	Artomaña	1,47	ha	DESC3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc >% 50-<=% 80
96	La Arroyada Untza	Untza	2,64	ha	DESC3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc >% 50-<=% 80
96	La Arroyada alto	Untza	26,41	ha	DESC3.2	Sastrakak kentzea, mekanizatuta, kateak; malda: >% 15-<=% 30 fcc >% 50-<=% 80
